

Higienea eta Autokontrola

Europa mailan, elikagaien higieneri buruzko 852/2004 (CE) Araudi (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2004-81035>) orokorrarak **nekazaritza-ekoizpen primarioan aplikatu beharreko higiene-neurriak** ezartzen ditu.



Estatu mailan, el 9/2015 EDak (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2015-710>) nekazaritzaren ekoizpen primarioan **elikadura produktuen higienezaren arloan arautegia aplikatzeko baldintzak** arautzea du helburu.

Higiene betekizunak

Elikagaien higieneri buruzko 852/2004 Araudi orokorraren I. Eranskineko A atalak nekazaritza-ustategietan aplikatu beharreko **higiene-neurriak** ezartzen ditu:

- Instalazioak, ekipoak, edukiontziak, ibilgailuak eta abar **garbitzea**.
- **Higienea** ekoiztean, garraiatzean eta biltegiatzean.
- Edateko ura edo **ur garbia** erabiltzea.
- **Hondakinen** kudeaketa.
- Landareen **gaixotasunak eta izurriteak**.
- Langileen **prestakuntza**.

Neurri horien xedea da saihestea landare-ekoizpenen segurtasunari eragin diezaioketen eragileen bidezko kutsadura.

LANDARE EKOIZPENAREN ARRISKUEN berriak ezagutu (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/category/arriskuak-sektoreka/frutak-barazkiak-lekaleak-eta-fruitu-lehorrak/>)

Erregistro dokumentala

Gainera, 852/2004 Araudiaren I. Eranskineko A atalaren arabera, **nahitaezkoa da ustategian erregistro jakin batzuk edukitzea**:

- Produktu fitosanitarioak eta biozidak erabiltzea.
- Izurriteak eta gaixotasunak agertzea
- Landareetatik hartutako laginekin edota gizakientzat garrantzia duten beste lagin batzuekin eginiko analisi guztien emaitzak.

Ustiapen-koadernoa eragiketa guztiak jasotzen dituen erregistroa da: laborantzan eginiko lurraren lanketa, ereintza, ureztaketa, uztondoaren tratamendua, fitosanitario eta ongarrien aplikazioa... Adierazi egingo da lursailen kokapena eta zein egunetan egin den eragiketa bakoitza, bai eta hori eskatzen duten eragiketarako baimenak, albaranak edo fakturak ere.



USTIAPEN-KODERNORA sarbidea (http://www.euskadi.eus/ustiapen_koaderno/web01-a2nekabe/eu/)

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategiaren koaderno, MAPAk argitaratutako ustiapen-koadernoaren islada, bat dator **produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria** lortzeko jardura-esparrua ezartzen duen irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuko (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2012-11605>) III. Eranskinean ezarritakoarekin, bai eta **landare-osasunerako produktuen erabilerari buruzko informazioa erregistratzeari dagokionez nekazaritza eta abeltzaintzako titularren betebeharrak** ezarri dituen otsailaren 9ko APA/326/2007 Aginduarekin (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-3435>) ere.

Autokontrola

Elikagaien higieneari buruzko 852/2004 Araudiak ezartzen du ekoizleak, ustiategiko arduraduna den heinean, bere **ekoizpenari loturiko arriskuak ezagutu eta kontrolatu** behar dituela.

Oro har, lehenengo mailako ekoizpenean autokontrolerako metodo hedatu eta gomendatuena **Higiene-jardunbide egokiaren gida** ezartzea da.

+ Higien-jardunbide egokiak

+ Informazio gehigarria